14/ ASOCIACIONES ECOLOGISTAS, SINDICATOS Y SANITARIOS SE UNEN CONTRA LA INCINERACION. 15/ UA SE POSICIONA ABIERTAMENTE CONTRA LA EXPANSION DEL EUSKARA. 16/ ROBAN UNA FURGONETA DE KUTXA.

Cazalis ez zen bere epaiketara joan, baina taldekideen laguntzaz intsumiso izateko dituen arrazoiak ederki adierazi zizkion epaileari. Javier GALLEGO

Akordeak intsumisioa zabaltzeko

■ Negu Gorriak taldeak kontzertua eskaini zuen Donostiako Entzutegi aurrean. ■ Mikel Cazalis taldeko kidearen epaiketaren aurkako ekintza izan zen. ■ Lagun askok bat egin zuen gazte antimilitaristarekin.

Horrelakoa da bizitza..., ozenki, erritmoz eta ehundaka gazteren laguntzarekin esan zien atzo Negu Gorriak taldeak Donostiako Entzutegiko epaileei. Mikel Cazalis taldeko kidea intsumiso izateagatik epaitu behar zuten eguerdian eta epaileak gaztearen arrazoiak entzun zituen bai, baina Fermin Muguruzaren ahotsean. San Martin kalean kontzertu ikusgarria bizi izan zen minutu batzuz eta donostiarrak gustoz gehitu ziren intsumisioaren aldeko ekintza kulturalera.

DONOSTIA
Bego ZUBIA

Donostiako Entzutegiak atzo eguerdian azken hilabeteetako itxura bera eskaintzen zuen. San Martin kaleko espaloiak intsumisoen elkarleku bihurtu dira Gipuzkoan epaiketak hasi zirenetik eta atzo ere, hantxe zeuden ehundaka gazte, oihu eta txistu artean, soldadutzaren aurkako eta intsumisioaren aldeko beren jarrera azalduz. Entzutegi barruan auziek normaltasunez aurrera segitzen zuten eta hirira inguratutako turistek aurpegi harrituarekin begiratzen zieten gazte antimilitaristei. Dena ohi bezala.

Baina kazetarien presentziak gauza bereziren batek gertatu behar zuela iragartzen zuen. Ohi baino argazki eta telebista kamera gehiago zegoen Entzutegi inguruan eta denak errepideari adi so.

Hálako batean, bi furgoneta errepide erdian gelditu ziren eta espaloian bildutako gazteek kalea hartu zuten.

Negu Gorriak taldeak, minutu gutxi behar izan zituen eszenatokia eratzeko. Intsumisoaren aldeko oihuek gidari urdurien bozinazoak isilarazi zituzten eta askok hura berehalakoan amaituko ez zela ikusirik, autoari kontaktoa kendu eta antimilitaristekin bat egin zuen. Autobus bat ere parean tokatu zen, baina bidaiarirk gabe berehala gelditu zen.

Fermin Muguruzaren ahotsa txistu eta oihuei gailendu zitzaien eta kitarra, baxu eta bateriarekin batera intsumisioaren mezua lau haizetara eta bereziki Entzutegiko horma sendoez bestaldera zabaldu zuen.

Lauzpabost abesti baino ez ziren izan. Nahikoa. Kafetegietan lasai asko eseritako andre eta gizonak kanpora irten eta festa aurpegi harrituarekin begiratzeari ekin zioten. Askok, disimulatuz, oina mugitzeari ekin zioten eta bitartean, kale erdian, ehundaka gaztek gorputzari gogor eragiten zion kontzertu arrunta balitz bezala.

Hala ere, intsumisioa eta Mikel Cazalis taldeko baxuaren aldeko oihuek ekintzaren arrazoia garbi azaltzen zuten.

Epaiketak salatzeko

Cazalisek berak kontzertuaren arrazoiak argitu zituen bukatu eta gero. «Oraingo egoera, erabiltzen ari diren errepresio selektiboa salatzeko egin dugu» zioen, aurpegian jasotako erantzunaz gustora zegoela argi erakutsiz. Cazalisek orain sei urte erabaki zuen intsumiso egitea «eta orain epailearen aurrera etortzea tokatu zait, beraz, protesta bezala kalean zer dagoen jakin dezaten hau egitea erabaki dugu, intsumiso batzuk atxilotu eta beste batzuk libre uzten baitituzte». Epaileei, «fartsa hauek jasateko prest ez gaudela» esan nahi zien atzo, «nahiko fartsa pasa ditugu epaiketetan eta badakigu zer diren».

Fermin Muguruzak «gauzak ozenki betidanik esan ditugu eta gaur ere halaxe egin dugu» zioen bere aldetik.

Poliziarik ez azaltzea eta istilurik ez izatea ere eskertu zuen. «Konturatu dira hau ekintza kultural zuzena izan dela eta, beraz, hurrengo baterako ere kontutan hartzea espero dezagun».

Kontzertuaren ondoren, bertan bildutakoek manifestazioa egin zuten Gobernu Militarreraino.

Plante al tercer grado en Lizarra

LIZARRA
Carmen LAKUNZA

David Ardanaz de Carlos, de Agoitz; Juan Martín Goñi Beltza, de Etxarri; y Patxi Billares Loigorri, Alfredo Liras, Iñigo Rodríguez, de Iruñea, quebrantaron el domingo el tercer grado penitenciario al no acudir a dormir a la cárcel de Iruñea. Con ellos suman 71 los insumisos de todo el Estado que hacen plante al tercer grado penitenciario.

En una rueda de prensa celebrada ayer delante de la fachada del cuartel Marqués de Lizarra, abandonado por los militares hace un año, dieron a conocer el quebrantamiento de la condena. Comenzó hablando un insumiso que ha cumplido un año de cárcel que criticó el tercer grado y acusó al Estado de intentar con él lavar su imagen ante la sociedad. Igualmente apoyó la coherencia de sus compañeros que hacen el plante siguiendo la estrategia de desobediencia civil.

Con el plante al tercer grado pretenden poner en evidencia a un Estado que «continúa obcecado en reprimir y encarcelar con su maquinaria violenta a todos los que nos atrevemos a cuestionarlo».

El hecho de encerrarse en Lizarra tiene como objetivo lanzar un mensaje de concienciación sobre la necesidad de la desmilitarización social.

Si bien la idea inicial de los insumisos al decidir encerrarse en Lizarra era hacerlo en el cuartel para reivindicar una desmilitarización de la sociedad, los graves problemas legales que ello pudiera acarrear les hicieron desistir y se encerraron en el ayuntamiento. Sin embargo, a última hora de la tarde fueron desalojados por orden del alcalde. Los insumisos tenían previsto realizar una concentración para decidir qué hacer tras el desalojo.